

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Banakako kirolarientzako dirulaguntzak 2026

BDNS (Identif.): 895664.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/895664>.

Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke edozein kirol federaziori atxikitako banakako kirolariak, baldin eta Iruña Okan errolatuta badaude 2026an eta aurreko bi urteetan ere udalerrian errolatuta egon badira etenik gabe.

Uneko urtean federazio lizentzia indarrean duten banakako kirolariak, kirol jarduera egi-teagatik ordainsaririk jasotzen ez dutenak eta kirol arloan edo administrazio arloan zehapen astunik jaso ez dutenak.

Iruña Okako Udalak eskainitako proiekturen baten antzekoa aurkezten badu pertsonaren batek, udala harremanetan jarriko da pertsona horrekin, aurkeztutako programa guztien bate-ragarritasuna bermatzeko.

Diruz lagunduko ez direnak. Deialdi honen aplikazio eremutik kanpo geratzen dira honako jarduera hauek:

a) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan jasotako inguruabarretakoren batean daudenak.

b) Izaeragatik edo xedeagatik Kirol Batzordeari esleitutako jardun eremuekin zuzeneko loturarik ez dutenak.

c) Edozein motatako zerga betebeharrak (tokikoak eta Gizarte Segurantzarekikoak barne) egunean ez dituzten erakunde edo elkarteek aurkeztutako eskaerak.

d) Ez dira kontuan hartuko aurreko deialdietan emandako dirulaguntzen justifikazio memoria entregatu gabe duten jarduera edo programei buruzko eskaerak.

e) Ez dira kontuan hartuko beren jarduera publikoetan indarreko legeria betetzen ez duten elkarte, erakunde eta pertsonen proposamenak (jaiotza tokiagatik, arrazagatik, sexuagatik edo erlijioagatik diskriminazioa).

Bigarrena. Xedea

Aurrekontu mugak errespetatuz, kirol jarduerarekin zuzenean lotutako federazio eta joan-eto-rrri gastuak edo bestelakoak finantzatzen laguntzea (material inbentariagarria ez-suntsikorra erostea izan ezik), 2025ean eta 2026an Estatuko eta nazioarteko lehiaketa ofizialetan parte hartzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2026ko martxoaren 9ko erabaki baten bidez onetsi zituen. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Sistema Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Kontsultatu oinarri arautzaileen bosgarren klausula.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak eta laugarren oinarrian aipatzen diren agiriak aurkezteko, 30 eguneko epea izango da, deialdia argitaratu ondorengo egunetik hasita.

Langraiz Oka, 2026ko martxoaren 25a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ANGEL MONTES SANCHEZ